

ikasmina:

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoako bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Pertsonak eta ikaskuntza ez formala

91. dokumentua

2023ko martxoa

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Inguruneke Departamentua



**ETORKIZUNA
ORAIN**

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Ikasten ari diren gipuzkoarrak.....	4
2.1. Ikasten duten pertsonak.....	4
3. Pertsonak eta ikaskuntza ez formala.....	6
3.1. Ikaskuntza ez-formaleko partaidetza: generoa eta adina	6
3.2. Ikaskuntza ez formala: ikasketa maila eta laneko egoera	8
3.3. Ikaskuntza ez formala egiteko arrazoiak.....	11
3.4. Ikaskuntza ez formaleko jardueren maiztasuna	16

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutza lehiakorrean eta dinamikoan oinarritutako ekonomia duen gizarte bihurtu nahi du. Horretarako, uste dugu bizitza osoko ikaskuntza oso tresna garrantzitsua dela; izan ere, pertsonen eta gizartearen hazkunde pertsonala, profesionala eta soziala eskaintzen du.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak uste du talentuaren ikaskuntza eta garapena elementu estrategikoa dela aurrerapen eta kohesio sozialean. Bertan, pertsonak izango dira ardatz: sozialki jasangarria den garapen-eredua eraiki nahi duen Lurraldea, pertsonen talentua, erakundeen dinamismoa eta bultzada teknologikoa elkartuz.

Gero eta konplexuagoa, malguagoa den eta interkonektatuago dagoen gizartean, ikaskuntza-prozesuak oso garrantzitsuak dira; are gehiago, pertsonak bizitza osoan landu behar dituzte (pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala), eta horrela, beren ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak mantendu, hobetu eta zabalduko dituzte.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du. Urtero (urteko lehen hiruhilekoa) egindako kontsultaren emaitzak biltzen ditu eta 2022ko ikaskuntza-jarduerekin lotuta pertsonen gai garrantzitsuetan oinarritzen da.

Dokumentu honek ikaskuntza ez formaleko partaidetzarekin lotutako emaitzak erakusten ditu denbora-tarte zabala aintzat hartuta. Hala, pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa), pandemian zehar (2020-2021eko batezbestekoa) eta gaur egun (2022) izandako bilakaera zein izan den ikus dezakegu.


2. Ikasten ari diren gipuzkoarrak

2.1. Ikasten duten pertsonak

Gipuzkoako hamar heldutik lau ikasten ari dira

2022an, Gipuzkoako hamar heldutik (25 eta 74 urte artean) lauk¹ (% 39,2) hartu dute parte azken hamabi hilabeteotan ikaskuntzako jardueraren batean (formala edo ez-formala). Ratio hori pandemiako aldi gogorrenean (2020-2021eko batezbestekoa) izan zenaren antzekoa da, eta pandemia aurreko aldian (2018-2019ko batezbestekoa) izandakoaren oso antzekoa. Horrek guztiak agerian uzten du Gipuzkoako helduek ikaskuntzan duten partaidetza finkatuta dagoela.

1. grafikoa. Ikaskuntza iraunkorra egiten duten pertsonak



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua


¹ Gipuzkoako helduen bizitza osoko ikaskuntzari buruzko inkesta (2022. urtearen hasieran egindakoa).

Bizitzan zeharreko ikaskuntzako jarduerak bi ikaskuntza motarekin lotuta daude:

- Ikaskuntza formala. Hezkuntza arloak (baimendutako pertsonak eta erakundeak) eskaintzen dituen eta sartzeko baldintzei eta curriculum-edukiei dagokionez araututa dauden ikaskuntza-jarduerei egiten die erreferentzia. Jarduera horien azken helburua titulazio ofiziala lortzea izaten da.
- Ikaskuntza ez-formala. Edozein esparrutan (hezkuntza-erakundea, enpresa, beste batzuk eta abar) bideratutako ikaskuntzako jarduerak biltzen ditu, horien helburua ezarritako edukien programa jakinaren arabera ikasketako xede batzuk lortzea denean, baina amaitzean titulu baten aitortpen ofiziala lortu gabe (dena den ziurtagiri mota ezberdinak jaso daitezke).

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza motaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

Azken urtean, Gipuzkoako hamar heldutik batek (gutxi gorabehera) hartu du parte ikaskuntza formaleko jardueraren batean. Ratio hori aurreko aldian izandakoa baino zertxobait handiagoa da.

Ikaskuntza ez-formalari dagokionez (formala baino hiru aldiz handiagoa da), partaidetza-tasa zertxobait gutxitu da. 2023ko emaitzek erakutsiko digute beharrezko joera hori finkatzen den ala ez.

3. Pertsonak eta ikaskuntza ez formala


3.1. Ikaskuntza ez-formaleko partaidetza: generoa eta adina

Ikaskuntza ez-formaleko parte-hartzeak beheranzko joera txikia izan du azken urteotan

2022an, Gipuzkoako hamar heldutik hiruk hartu du parte azken urtean ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean. Partaidetza-ratio horrek aurreko aldiekin alderatuta jaitsiera izan du; izan ere, 2018-2019 urteetan, Gipuzkoako helduek ikaskuntza ez-formalean zuten partaidetza-tasa (batezbestekoa) % 35,5koa izan (2022koa baino ehuneko 3,7 puntu handiago).

Ikaskuntza ez-formalean, gizonen kolektiboak partaidetza handiagoa du (% 34,2) emakumeek baino (% 29,4). Emaitza hori aurreko aldietan nabaritutakoaren aurkakoa da. Hala, gizonen artean, ratio hori zertxobait igo da 2022an, baina emakumeen artean, beste behin, beheranzko joera ikusi da (% 33,1etik % 29,4ra).

3. grafikoa Ikaskuntza ez formala egiten duten pertsonak, sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

Ikaskuntza ez-formaleko partaidetzak behera egiten du pertsonen adinak gora egin ahala


25 eta 44 urte arteko hamar gipuzkoarretik lauk (gutxi gorabehera) hartu du parte ikaskuntza ez-formaleko jardueratan kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan. Ratioa % 33,5eraino gutxitzen da 45 eta 54 urte artekoen kolektiboan, % 25,9raino 55 eta 64 urte artekoetan, eta % 15,9raino adin handiagokoen artean. Hori guztia kontuan hartuta, adin txikieneko eta adin handieneko taldeen artean, ikaskuntza ez-formaleko partaidetzan dagoen arrakala ehuneko 26,4koa da.

Ondorioz, ikaskuntza ez-formaleko jardueratan parte hartzeko garaian, pertsonen adina faktore erabakigarria dela baieztatu da.

Hala, aurreko aldiekin alderatuta, partaidetzaren bilakaerak honako hauek erakusten ditu:

- Tarteko adin-kolektiboetan, partaidetzan jaitsiera gertatu da: Ehuneko -10 puntukoa 35 eta 44 urte arteko pertsonen artean, eta ehuneko -6,3 puntukoa 45 eta 54 urte arteko pertsonen kasuan.
- Gainerako adin-taldeen artean, joera hori egonkorrago mantendu da eta gorabehera txikiak dauden arren, aldi batetik besterako ratioak oso antzekoak dira azkenean.

4. grafikoa Ikaskuntza ez-formala egiten duten pertsonak, adinaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

3.2. Ikaskuntza ez formala: ikasketa maila eta laneko egoera

Pertsonen ikasketa maila erabakigarria da ikaskuntza ez-formalean duten partaidetzari dagokionez


Hurrengo grafikoan ikus dezakegun moduan, biztanleek lortutako gehieneko ikasketa mailak ikaskuntzako jarduera orokorretan eragina du, eta bereziki ikaskuntza ez-formaleko jardueretan. Hala, pertsonen ikasketa mailak gora egin ahala, ikaskuntza ez-formaleko jardueretan duten partaidetza ere igo egiten da.

2022an, hirugarren mailako ikasketak dituzten 25 eta 74 urte arteko gipuzkoarren % 43,3k hartu du parte azken urtean ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean. Dena den, partaidetza-tasa % 14,6raino gutxitzen da lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean.

Denbora-tarte zabalagoa aztertzen badugu (gaur egungo egoeraren eta 2018-2019koaren arteko alderaketa), bigarren mailako ikasketak (ehuneko -5,7 puntu) eta hirugarren mailakoak (ehuneko -7,7 puntu) dituzten Gipuzkoako helduek ikasketa ez-formalean izandako partaidetzak beheranzko joera izan duela ikus dezakegu. Dena den, lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen partaidetza (denboran zehar, kolektibo horren bilakaera aldakorragoa izan da) gutxi aldatu da 2018-2019ko datuei dagokienez (ehuneko +1,4 puntu).

5. grafikoa Ikaskuntza ez formala egiten duten pertsonak, ikasketa mailaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

Ordaindutako enplegua duten pertsonak dira ikaskuntza ez-formalean gehien parte hartzen dutenak


Pertsonen lan-egoerari eta ikaskuntza ez-formalarekin duten loturari dagokienez, enplegua duten pertsonen partaidetza-ratioa altuagoa da; hain zuzen ere, % 39,7k aipatu du azken urtean ikaskuntza ez-formaleko jardueraren bat egin duela. Ratio hori, ordea, % 27,9raino gutxitzen da langabezia dauden kolektiboa aztertzen denean, eta % 17,2raino beste egoeraren batean (erretirodunak, ikasleak, ordaindutako lan-merkatuan sartuta ez daudenak) dauden pertsonen kasuan.

2018-2019ko aldiarekin alderatuta, enplegua duten, langabezia dauden eta beste egoeraren batean dauden pertsonen kasuetan, ikaskuntza ez-formaleko jardueran izan duten partaidetza jaitziera gertatu da (ehuneko -5,5 puntu; ehuneko -5,9 puntu eta ehuneko -1,0 puntu, hurrenez hurren).



6. grafikoa Ikaskuntza ez formala egiten duten pertsonak, lan egoeraren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

3.3. Ikaskuntza ez formala egiteko arrazoiak

Arrazoi profesionalak, ikaskuntza ez-formalean parte hartzeko motibazio nagusia

ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egiteko pertsonak emandako motibazioen artean, arrazoi profesionalen proportzioa askoz ere handiagoa da. Zehatzago esanda, 2022an ikaskuntza ez-formalean parte hartu duten gipuzkoarren % 72,9k jarduera hori egiteko arrazoi profesionalak aipatu ditu. Ratio hori aurreko aldietan izandakoa baino zertxobait handiagoa da, baina ez da denboran zehar alde esanguratsurik izan.

Datuak generoaren ikuspegitik aztertzen baditugu, aldeak txikiak direla ikusiko dugu:

- Emakumeek zein gizonak aipatu dute ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean parte hartzeko arrazoi nagusia profesionala dela: bi kasuetan, ehuneko hori hamar heldutik zazpikoa baino gehiagokoa da.
- Gainera, bi kolektiboen kasuan, azken urteotako bilakaerak motibazio profesionalean goranzko joera gertatu dela erakusten du; aldiz, motibazio pertsonalak beheranzko joera izan du.

1. taula Ikaskuntza ez formala egiteko motibazioa, generoaren arabera

Ikaskuntza ez formala egiten duen 25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
GUZTIRA		
2018-2019ko batezbestekoa	70,0	30,0
2020-2021eko batezbestekoa	70,6	29,4
2022	72,9	27,1
Emakumeak		
2018-2019ko batezbestekoa	68,2	31,8
2020-2021eko batezbestekoa	69,5	30,5
2022	71,2	28,8
Gizonak		
2018-2019ko batezbestekoa	72,0	28,0
2020-2021eko batezbestekoa	71,8	28,2
2022	74,5	25,5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

ikaskuntza ez-formalean parte hartzeko motibazioetan adinaren arabera dauden aldeei dagokienez, 65 urte arte arrazoi profesionalak eragindako partaidetza nabarmen handiagoa dela ikus dezakegu. Horrez gain, 35 eta 44 urte artekoen taldea da gainerako adin-taldeek baino partaidetza-tasa handixeagoa duena. Hain zuzen ere, kolektibo horretako pertsonen % 85,9rentzat, arrazoi profesionalak dira jarduera mota horiek egitera bultzatzen dituztenak.

Aldiz, 65 urte baino gehiagoko pertsonak (batez ere erretirodunek osatzen dute kolektibo hori) arrazoi pertsonalak bakarrik aipatzen dituzte ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egitera bultzatu dituzten arrazoiak zehaztean.

2. taula Ikaskuntza ez formala egiteko motibazioa, adinaren arabera

Ikaskuntza ez formala egiten duen 25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
25-34 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	72,1	27,9
2020-2021eko batezbestekoa	71,1	28,9
2022	74,5	25,5
35-44 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	82,1	17,9
2020-2021eko batezbestekoa	86,2	13,8
2022	85,9	14,1
45-64 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	68,2	31,8
2020-2021eko batezbestekoa	66,8	33,2
2022	75,9	24,1
65-74 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	5,6	97,2
2020-2021eko batezbestekoa	10,5	94,7
2022	0,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

“Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak eskuratzea”, “Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko” eta “Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzea” dira ikaskuntza ez-formalerako arrazoi nagusiak

Gipuzkoako helduek ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egitearekin lotuta ematen dituzten argudioei erreparatzen badiegu, honako hau nabarmendu behar da:

- “Lana hobeto egitea eta/edo aurreikuspen profesionalak hobetzea” da arrazoi profesionalari lotuta ikaskuntza ez-formalean parte hartzeko arrazoi nagusia (% 73,3).
- Arrazoi profesionalekin jarraituta, baina garrantzi txikiagoarekin, aipatu beharrekoak dira “ziurtagiria lortzea” (% 32,5) eta “lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea” (% 20,0) arrazoiak. Biak daude laneko ibilbidea hobetzearekin lotuta.
- ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egiteko arrazoi pertsonalen artean, honako hau da motibazio nagusia: “interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzea” (% 89,4) eta, atzean geratu dira gainerako argudioak: “nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzea” (% 61,2) eta “jendea ezagutzeko/dibertsioagatik” (% 19,2).

3. taula Ikaskuntza ez formala egiteko arazoi espezifikoak

Ikaskuntza ez formala egiten duen 25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019ko batezbestekoa	2020-2021eko batezbestekoa	2022
Arrazoi profesionalak			
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	75,7	74,9	73,3
Ziurtagiria lortzea	37,1	37,0	32,5
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	24,3	19,8	20,0
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	16,3	15,5	11,4
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzea	14,2	14,1	10,2
Nire negozioa sortzea	6,3	6,3	5,5
Arrazoi pertsonalak			
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	84,6	77,2	89,4
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	61,5	55,9	61,2
Jendea ezagutzea/dibertsioa	24,8	22,2	19,2

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

Hurrengo taulan ikus dezakegun moduan, ez da alde handirik ikusten ikaskuntza ez-formalean parte hartzeko motibazioen ordenan generoaren ikuspegiari dagokionez. Hala:

- Emakumeen % 72,9k eta gizonezkoen % 73,7k aipatu du ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egin dituztela "nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko".
- Bi kolektiboen kasuan, "ziurtagiria lortzea" arrazoia dago bigarren postuan; hau da, emakumeen % 27,1ek eta gizonen % 37,2k aipatu du arrazoi hori.
- ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egiteko arrazoi pertsonalen artean, gainerakoak baino nabarmen gorago dago "Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak eskuratzea" arrazoia. Argudio hori emakumeen % 88,1ek eta gizonen % 90,5ek aipatu du.

4. taula Ikaskuntza ez formalerako arrazoi espezifikoak, generoaren arabera

Ikaskuntza ez formala egiten duen 25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019ko batezbestekoa	2020-2021eko batezbestekoa	2022
Emakumeak			
Arrazoi profesionalak			
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	73,5	73,9	72,9
Ziurtagiria lortzea	35,3	39,8	27,1
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	25,1	21,2	19,5
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	17,9	16,7	9,3
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzea	15,9	16,1	11,0
Nire negozioa sortzea	7,8	7,8	5,9
Arrazoi pertsonalak			
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	85,0	77,3	88,1
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	65,5	57,9	61,9
Jendea ezagutzea/dibertsioa	27,1	23,8	16,1
Gizonak			
Motivos profesionales			
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	78,2	76,0	73,7
Ziurtagiria lortzea	39,0	34,5	37,2
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	23,3	18,7	20,4
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	14,6	14,5	13,1
Aumentar mis posibilidades de cambiar de empresa	12,4	12,2	9,5
Nire negozioa sortzea	5,0	5,0	5,1
Arrazoi pertsonalak			
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	84,2	76,9	90,5
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	57,2	54,1	60,6
Jendea ezagutzea/dibertsioa	22,2	20,6	21,9

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

3.4. Ikaskuntza ez formaleko jardueren maiztasuna

Helduen % 12,7k etengabe hartzen du parte ikaskuntza ez-formalean

Ikasteko maiztasunari dagokionez, azterketak denboraren arabera bi une jasotzen ditu: alde batetik, kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan egindako ikaskuntza eta, bestetik, aurreko lau asteetako (hau da, etengabeko ikaskuntza).

Kontsultako emaitzen arabera, Gipuzkoako hamar heldutik batek baino gehixeagok (% 12,7) hartzen du parte ikaskuntza ez-formal jarraituko jardueretan eta ez dago pertsonen generoaren arabera alderik. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da aurreko aldi partaidetza txikiagoa izan zela (pandemiaren eraginez, 2020-2021eko batezbestekoa) eta 2022an pandemia aurreko mailetara itzuli dela gizonezkoen kasuan, baina ez emakumezkoen artean. Izan ere, haien parte-hartzea zertxobait txikiagoa izan da (% 12,7koa vs. % 14,9koa).

5. taula Ikaskuntza ez formaleko maiztasuna, generoaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019ko batezbestekoa	2020-2021eko batezbestekoa	2022
Azken 12 hilabeteak			
Guztira	35,5	33,0	31,8
Gizonak	33,8	32,9	34,2
Emakumeak	37,2	33,1	29,4
Azken 4 asteak			
Guztira	13,7	9,5	12,7
Gizonak	12,5	9,1	12,7
Emakumeak	14,9	10,0	12,7

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

Adin-taldearen arabera, ikaskuntza ez-formaleko jardueretako partaidetza jarraitua handiagoa da 35 eta 44 urte artekoen (% 18,0) artean. Jarraian, kolektibo gazteena (% 15,4) eta adin handieneko bi taldeak (% 11,2 eta % 6,1, hurrenez hurren) daude sailkapenean.


6. taula Ikaskuntza ez formaleko maiztasuna, adinaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019ko batezbestekoa	2020-2021eko batezbestekoa	2022
Azken 12 hilabeteak			
25-34 urte	41,0	44,8	42,3
35-44 urte	49,0	42,5	39,0
45-64 urte	33,8	29,9	29,7
65-74 urte	15,0	14,9	15,9
Azken 4 asteak			
25-34 urte	19,2	12,3	15,4
35-44 urte	15,5	12,8	18,0
45-64 urte	12,3	8,4	11,2
65-74 urte	9,4	5,0	6,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua



Izenburua:	Pertsonak eta ikaskuntza ez formala 91. dokumentua, 2023ko martxo
Sustapena eta finantzaketa:	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia 
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa lana:	Datakey, S.A.

